


HERRITARREN ETA GIZARTEAREN PARTAIDETZARAKO FORU PLANA (2020-2023)

Bizkaiko Foru Aldundia



Koordinatzailea: Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritza.
Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetea.

Irakurketa errazerako egokitzapena: Blanca Mata
(Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza)

Diseinua eta ilustrazioak: Mercedes Corretge



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalitzen du.

© Bizkaiko Foru Aldundia- Diputación Foral de Bizkaia
www.bizkaia.eus

© Ilustrazioen: M.Corretge

Lege-gordailua: BI-01975-2020

Plana4 orrialdea

Zer da Plan hau?
Nork bultzatzen du?
Nori zuzentzen zaio?
Zer lortu nahi du?

Herritarren partaidetza 6 orrialdea

Zergatik da garrantzitsua?
BFAko partaidetzako eredua
eta aurrekariak
Nola garatu da Plana?

Jokabide lerroak eta ekintzak 11 orrialdea



1. Lerroa: BFAko politketan, programetan eta zerbitzuetan partaidetza



2. Lerroa: Partaidetza Udaletatik



3. Lerroa: Herritarren eta Bizkaiko eragileen partaidetza



4. Lerroa: BFA partaidetzaren sareetan eta Gobernu Irekia



Plana

Zer da Plan hau?

Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako Foru Plana (2020-2023) BFAk hurrengo 4 urtetan zehar partaidetza arloan garatuko dituen ekintzak azaltzen duen dokumentua da.

Plan hau beste urrats bat da Bizkaiko Foru Aldundiko kudeaketaren barruko parte-hartzearekiko konpromisoan. Izan ere, Bizkaiko **garapen iraunkorrean** aurrera egiteko irtenbide, akordio eta lankidetzaren berriak eman ditzakeen tresna baita.

Garapen iraunkorra:

Herririk edo eskualde baten garapena, ekonomikoki hazten dena, herritarren eskubideak eta ingurumena errespetatuz.

Irakurtzen ari zaren dokumentua Planaren testuaren Irakurketa Errazera egokitzapena da, herritar guztiei irakurketa eta ulermena errazteko.

Nork bultzatzen du?

Bizkaiko Foru Aldundiak Foru Sail guztietatik. Plan hau herritarren eta Bizkaiko probintziako eragile sozialen (entitateak eta erakundeak) lankidetzarekin egiten da.

Nori zuzentzen zaio?

Herritar guztiei.

Zer lortu nahi du?

Partaidetza nabarmena, Bizkaiko talde, udalerririk edo eskualde guztietara iristen dena, Aldundiaren kudeaketa-modu naturala dena, eta, horrela, politika eta zerbitzu publikoei balio handiagoa emango diena.



Horretarako, Planak 4 helburu estrategiko ditu:

- **Parte hartzearen kultura sustatzea:**
parte hartzera pertsona gehiago hurbiltzea.
- **BFAren partaidetza eredia hobetzea eta aurreratzea:**
ahotsa ematea, pertsona eta talde guztiei entzutea,
akordioak egitea eta erakunde bezala ardura mantentzea.
- Aldundiko langileei **trebakuntza eta tresnak ematea**
parte-hartzeari dagokionez.
- **BFAtik laguntza indartzea** tokiko erakundeei
hauen parte hartze jardueretan.





Herritarren partaidetza

Zergatik da garrantzitsua?

Herritarren partaidetza eskubide eta tresna bat da gizarteak sektore publikoaren zereginetan partaide izateko duena eta balio publikoa sortzen duena, kasu honetan, Bizkairako.

Herritarren parte-hartzea:

Pertsona guztiei Gobernuen erabakietan sartzeko aukerak izan behar dira. Herritarrek modu independentean parte hartzeko modu bat da, administrazio publikoko edo alderdi politiko bateko kide izan beharrik gabe.

Herritarren esku-hartzeak gai publikoetan honetarako balio du:



Lurralderako **konponbide hobeak** aurkitzeko.



Herritarren **ezagutzaz eta esperientziaz** baliatzeko.



Adostasunak lortzeko elkarguneak bilatzeko eta herritarren eta erakundeen arteko konpromisua eta kolaborazioa sustatzeko.



Taldekoari eta **guztien ongiari** protagonismoa emateko, banakakoa baino haratago.



Herritarren beharrak erantzun bihurtzeko, herritarrak gogoan izanda foru politikak, programak eta zerbitzuak egiteko, jarraitzeko eta ebaluatzeko orduan.




KANALAK • ESPAZIOAK • PROZESUAK

Guztien ngira zuzenduta
Pluralak
Inklusiboak

Inklusiboak
Gardenak
Elkarlanean

Eredugarriak
Eraginkorrak

Aurrekariak



* Helburuak: 5 - Iraupena: 2 años - Ekintza: 13
Betetze maila: erdi-altua







Nola egin da Plana hau?


Plana egiteko **lan-prozesua** honako hau izan da:

- **Diagnosi-fasea:** Bizkaiko parte hartzearen egoera aztertzeko. Hemen bildu da parte hartze prozesua barneko eragileekin (langileak eta BFAko Sailak) eta kanpokoekin (herritarrak eta erakundeak).
- **Kanpoko jardunbide egokiak identifikatzeko eta aztertzeko fasea.** Beste lurralde batzuetan egiten ari diren parte hartzeko lan-lerroak eta proiektu interesgarriak.
- **2018 -2019 Planaren ondorioak eta integrazio fasea.**

Parte hartzeko prozesuan 600 pertsonak eta eragilek parte hartu dute, Foru Sailez gain. COVID-19ak eragindako mugen arren, Plana egiteko behar diren kolektibo eta ikuspegietatik mota guztietako iritziak eta proposamenak jaso ahal izan dira.



Nortzuk?	Nola?	Emitza
 <p>BFAko langileak</p>	<p>Galdeketa online enpleguaren atarian</p>	<ul style="list-style-type: none"> -Partaidetzaren garrantzia. asko baloratu dute. - Gutxi ezagutzen dituzte BFAko parte hartzearen baliabideak. -Partaidetzan trebakuntza zabaltzeko beharra dute.
 <p>Foru Saliak</p>	<p>Galdera-sorta, banakako bilerak eta kontaktuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Partaidetza organoak eta foroak nahikoak eta erabilgarriak dira, baina beste batzuk sortzea azter daiteke. - Organoek, espazioek eta kanalek ondo funtzionatzen dute, baina homogeneoagoak izan daitezke. - Parte-hartze prozesuek lan-sistema komuna izan behar dute.
 <p>BFAko gizarte parte hartzerako organoetako eragileak</p>	<p>Galdeketa online eta eztabaida taldeak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Asko baloratzen dituzte espazioak, parte hartzeko, sinergiak sortzeko eta sareko lana hobetzeko. -Foru politiken eta programen sorreran gehiago parte hartzeko interes handia.
 <p>Herritarrak</p>	<p>Bizkaiako herritarrei galdeketa online www.bizkaia.eu eta telefono bidez</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Partaidetza asko baloratzen du gobernantza hobea lortzeko. -Prozesuekiko batez besteko gogobetetzea: iritzia ematea erraza da, baina hasierako informazioan eta emaitzaren itzulketan hobetu daiteke.




Diagnosiak hainbat indargune eta hobetzeko eremu sortu zituen Bizkaiko parte-hartze ereduan sakontzen jarraitzeko **AUKERAK** eman dituztenak.

- Partaidetza kultura handiagoa sortzeko, kanpoan eta barruan.
- Herritarren partaidetza eguneroko kudeaketa modu bihurtzea BFAren barruan (sailak eta foru erakundeak) baita Bizkaiko udal eta mankomunitateetan ere.
- Partaidetzaren ondorioz lortutako emaitzei balioa ematea.





Jokabide lerroak eta ekintzak





1. Estrategiak eta foru planak egitean

- **Zer lortu nahi dugu?** Herritarren eta gizartearen parte-hartzea areagotzea eta sistematizatzea, hura egiteko funtsezko elementu gisa.
- **Zergatik egiten dugu?** Foru estrategia eta planek herritarren beharrei erantzun behar dietelako eta beharrezkoa delako haien iritzia edukitzea.

- **Zer egingo dugu?**

- Partaidetzaren prozesuak diseinatu eta estrategiak eta planak egiteko prozesuaren barruan txertatu.
- Partaidetza prozesuak dinamizatu.
- Emitzak eta eraginak ebaluatu eta honen kontuak eman.
- Estrategien eta planen gobernantzaren eredueta partaidetza dinamikak txertatu

- **Nork parte hartzen du?**

- Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.
- Foru Sailek.

- **Nola ebaluatuko dugu?**

- Partaidetza prozesuak dituzten planen ehunekoa (%).
- Partaidetza prozesuei buruzko informazioa ematen duten planen %a.
- Partaidetza dinamikak dituzten estrategien eta planen %a haien gobernantza eredueta.


- **Noiz?** 2020-2023 denboraldi osoan zehar.

2. Foru Arauak egitean

- **Zer lortu nahi dugu?** Herritarren eta gizartearen parte-hartzea areagotzea eta sistematizatzea, hura egiteko funtsezko elementu gisa.
- **Zergatik egiten dugu?** Foru arauak garrantzitsuak direlako Bizkaiko biztanleentzat. Nahiz eta urtero kontsulta publikoaren



eta gizarte ekarpenen izapideei jarraitu behar dien foru araudiaren urteko Plan bat ezartzen den, garrantzitsua da herritarrek, oro har, aldez aurreko prozesu horietan parte hartu ahal izatea.



- **Zer egingo dugu?**

- Partaidetzaren prozesuak diseinatu eta estrategiak eta planak egiteko prozesuaren barruan txertatu.
- Partaidetza prozesuak dinamizatu.
- Emaitzak eta eraginak ebaluatu eta honen kontuak eman.

- **Nork parte hartzen du?**

- Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.
- Foru Sailek.

- **Nola ebaluatuko dugu?**

- Partaidetza prozesuak dituzten foru arauak egiteko prozesuen ehunekoa (%).
- Partaidetza prozesuei buruzko informazioa ematen duten foru arauen %a.

- **Noiz?** 2020-2023 denboraldi osoan zehar.



3. Organoen funtzionamenduan eta partaidetzarako espazioetan

- **Zer lortu nahi dugu?** Hobetzen jarraitzea organo eta espazioek funtzionatu, optimizatu eta eguneratu daitezen, unean uneko beharrei eta erronkei erantzuteko.
- **Zergatik egiten dugu?** Partaidetzaren ereduaren funtsezko elementuak direlako eta funtzionamenduan homogeneousak eta biziak izan behar dutelako, beharrezkoa denean alda daitezkeenak.
- **Zer egingo dugu?**
 - Partaidetza, funtzionamendu eta informazio adierazleak sistematizatu.
 - Partaidetza prozesuak dinamizatu.
 - Eragina eta eragileen gogobetetzea ebaluatu.
 - Eguneratzeari buruz hausnartu.
- **Nork parte hartzen du?**
 - Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.
 - Foru Sailek.
- **Nola ebaluatuko dugu?**
 - Adierazle sistematizatuak dituzten eta beren jardueren berri ematen duten organoen eta espazioen ehunekoak (%).
 - Ebaluazio mekanismoak dituzten organoen eta espazioen %.
- **Noiz?** 2020-2023 denboraldi osoan zehar.

4. BFAk egiten dituen kontuak ematean

- **Zer lortu nahi dugu?** Partaidetza topaketetan eta kontuak emateko beste ekintzetan aurrera egitea.
- **Zergatik egiten dugu?** 2015etik kontuak-ematea Aldundiko gobernu irekian lehentasunezko gaia delako. Unairekin Topaketak, Bizkaia Goazen Autobusa... bezalako ekintzek foru politiketarako iritziak eta intereseko proposamenak jasotzea baimendu dute.

Kontuak ematea:

Herritarrek erakundeek beren funtzioak ondo betetzen dituztela zaintzen eta ebaluatzen duten prozesua.



- **Zer lortu nahi dugu?**

- “Bizkaia Egiten” Agintaldi Planaren barruan kontu-emate ekintzetan partaidetza sustatu.
- Foru Sailen kontu-ematean partaidetza sartzea.


- **Nork parte hartzen du?**

- Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.
- Ahdun Nagusiaren Kabinetearen Koordinaziorako Zuzendaritza.

- **Nola ebaluatuko dugu?**

- Partaidetza dinamikak dituzten topaketen eta kontu-emate ekintzen ehunekoa (%).
- Ekintza horietan jasotako proposamenen %.

- **Noiz?** 2020-2023 denboraldi osoan zehar.



5. Deliberazio-demokraziaren elementu berriak

- **Zer lortu nahi dugu?** Partaidetzari buruzko gauza desberdinak egiten jarraitzea banakako partaidetzari zeregin handiagoa emateko.

Deliberazio-demokrazia:

Demokrazia forma da, pertsona gaituen edo erabakiko denari dagokion eremuko pertsonen parte-hartzearekin kontaktzen duena.



- **Zergatik egiten dugu?** Gaur egun, partaidetza modu berriak martxan jartzen ari direlako, adibidez, Herritarren panelak edo epaimahaiak. Espazio hauetan modu gardenean hautatutako norbanakoek parte hartzen dute, Administrazioak aztertu behar dituen proposamenak egin eta eztabaidatzeko.
- **Zer egingo dugu?**
 - Partaidetza-demokraziaren modu berriak sartu.
 - Herritarren Iritzi Forua sortu.
- **Nork parte hartzen du?**
 - Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.
 - Foru Sailek.
- **Nola ebaluatuko dugu?**
 - Herritarren Iritzi Forua sortzea edo ez.
 - Foru horretan parte hartzen duten pertsonen kopurua.
- **Noiz?** 2020-2023 denboraldi osoan zehar.

6. BFAko langileen partaidetzari buruzko prestakuntza eta metodologia

- **Zer lortu nahi dugu?** Foruko langileei prestakuntza gehiagotzea eta partaidetza metodoen tresnak ematea.
- **Zergatik egiten dugu?** Langileen parte hartzea oso garrantzitsua delako, sentsibilizatutako eta gaitutako taldeak egotea, partaidetza prozesuek beharrezko balioa eman dezaten.
- **Zer egingo dugu?**
 - Partaidetzari eta gobernu irekiari buruzko prestakuntza eskaini; batez ere prestakuntzako pilulak aurrez aurre edo online.
 - Sailei eta foru erakundeei aholkatu prozesuak sortzen, hobetzen eta partaidetza espazioak indartzen laguntzeko.



- Gidaliburua egin, eguneratu eta zabaldu, Sailek parte hartzeko ekintzak diseinatu, planifikatu, kudeatu eta ebaluatu ditzaten.
- Jardunbide egokiei eta partaidetza metodoei buruzko tailerrak eta topaketak antolatu.

- **Nork parte hartzen du?**

- Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.
- Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak.
- Foru Sailek.

- **Nola ebaluatuko dugu?**

- Gidaliburua sortzea edo ez.
- Egindako prestakuntza jardueren kopurua.
- Prestakuntza jaso duten pertsona kopurua.

- **Noiz?** 2020-2023 denboraldi osoan zehar.



1. Tokiko partaidetzarako teknologia berriak BiscayTIKen laguntzarekin

- **Zer lortu nahi dugu?** Bizkaiko tokiko erakundeei partaidetzarako eta udal eta eskualdeko gobernu irekirako tresnak eskaintzea.
- **Zergatik egiten dugu?** Partaidetzarako, informaziorako eta gobernu irekirako tresna teknologikoak beharrezkoak direlako.
- **Zer egingo dugu?**
 - Une bakoitzean zer teknologia behar dituzten jakin.
 - Zer irtenbide eman daitekeen jakin eta beharretara erantzun.
 - Irtenbide horiek teknikoki martxan jarri.
 - Tresna horietako bat izango litzateke: “parte hartzeko atariak” (partaidetza kanaletara sarbidearekin, emaitzak.).
- **Nork parte hartzen du?** BiscayTIKek.
- **Nola ebaluatuko dugu?**
 - Partaidetzarako eta gobernu irekirako tresna teknologiko kopurua BiscayTIKen (Udala Zabaltzen zerbitzua).
 - BiscayTIKeko Udala Zabaltzen zerbitzuan partaidetza tresnak erabiltzen dituzten udal eta mankomunitateen kopurua.
- **Noiz?** 2020-2023 denboraldi osoan zehar.



2. Udaletatik eta mankomunitatetik partaidetza laguntzeko lankidetzak

- **Zer lortu nahi dugu?** Udal eta mankomunitate txikiei partaidetza jardueretarako zerbitzu erabilgarriak eskaintzea.
- **Zergatik egiten dugu?** Bizkaiko udal gehienak txikiak direlako eta baliabide ekonomiko, tekniko eta giza baliabide mugatuak dituztenez, laguntza behar dute partaidetza prozesuak garatzeko, balio handia baitute eskualde mailan.
- **Zer egingo dugu?** Laguntza zerbitzu bat eskaini, udal eta eskualde txikietan toki horietarako garrantzitsuak diren partaidetza prozesuak diseinatu eta abian jarri ahal izateko.
- **Nork parte hartzen du?** Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.
- **Nola ebaluatuko dugu?**
 - Onuradun udalen kopurua.
 - Onuradun mankomunitateen kopurua.
 - Lagundutako partaidetza prozesu kopurua.
- **Noiz?** 2020-2023 denboraldi osoan zehar.



3. Udalei eta mankomunitateei partaidetzari eta gobernu irekiari buruzko prestakuntza

- **Zer lortu nahi dugu?** Udal eta mankomunitate txikietako teknikariei eta politikariei partaidetzan sentibilizatzea eta prestakuntza.
- **Zergatik egiten dugu?** Toki eta eskualde mailan lan egiten duten pertsonak bultzatzen dituztelako partaidetza jarduerak eta garrantzitsua da horiei laguntzea, tresnak eta ezagutzak emanez.

- **Zer egingo dugu?**

- Prestakuntza aurrez aurre eta online.
- Partaidetzari buruzko hedapen gidak, ikerketak, ekitaldiak....
- Tokiko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzekeo jarduerak.


- **Nork parte hartzen du?**

- Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.
- BiscayTIKek.

- **Nola ebaluatuko dugu?**

- Udal partehartzaile kopurua.
- Mankomunitate partehartzaile kopurua.
- Pertsona partehartzaile kopurua.

- **Noiz?** 2020-2023 denboraldi osoan zehar.





3 LERROA

Herritarren eta Bizkaiko eragileen partaidetza

1. BFAko Partaidetza Ataria hobetzea

- **Zer lortu nahi dugu?** Partaidetza Ataria eguneratzea eta hobetzea, Bizkaiko egoerari, sarbideari eta partaidetza prozesuei buruzko erreferentziazko espazio gisa.

- **Zergatik egiten dugu?** Tresna teknologikoak oso beharrezkoak direlako partaidetzari buruzko informazioa emateko eta sustatzeko; ataria berrituz gero, pertsona gehiagok parte hartu ahal izango dute.

- **Zer egingo dugu?**

- Atari berri bat diseinatu. Erakargarriagoa, intuitiboagoa eta herritarrei zuzenduta.

- Eguneratuta eduki, partaidetza prozesu irekiei eta emaitzei buruzko informazioarekin.

- Informazioa bilatzeko sistemak hobetzea.

- Online partaidetza prozesuetarako sarbide zuzenagoa.

- **Nork parte hartzen du?**

- Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.

- Komunikaziorako Zuzendaritzak.

- Lantik.

- **Nola ebaluatuko dugu?**


- Atariaren berritze osoa edo ez.

- Atariaren eguneratze jarraia edo ez.

- **Noiz?** Diseinu berria 2020 eta 2021 bitartean egingo da eta ordutik aurrera, eguneratu eta hobetu egingo da.

Ataria webgune honetan dago:

<https://web.bizkaia.eus/eu/herritarren-eta-gizartearen-partaidetza>



2. Partaidetza mapa eta ekintzen memoria

- **Zer lortu nahi dugu?** Herritarrei partaidetza prozesuen inpaktuari buruzko informazioa ematea eta partaidetza bideak hurbiltzea eta ezagutaraztea.
- **Zergatik egiten dugu?** Partaidetzarako informazioa beharrezkoa delako. Herritarrek jakin behar dute nola, non eta noiz parte har dezaketen, zer emaitza dituen eta modu errazean parte hartzeko aukera izan behar dute.
- **Zer egingo dugu?**
 - Partaidetza Mapa bat sortzea Partaidetza Atari barruan eta eguneratua mantentzea.
 - Urteko Partaidetza memoria egitea eta hedatzea.
- **Nork parte hartzen du?**
 - Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.
 - Komunikaziorako Zuzendaritzak.



- **Nola ebaluatuko dugu?**

- Partaidetza Mapa egitea edo ez.
- Partaidetza Memoria egitea edo ez.

- **Noiz?**

- Mapa 2020ko abenduaren 31a baino lehenago eginda egon behar da.
- Partaidetza memoriak 2021tik aurrera egingo dira.

3. Foru-arauak egitean partaidetza prozesuen egutegia

- **Zer lortu nahi dugu?** Herritarrei foro arauak egiteko prozesuetan parte hartzen laguntzea.

- **Zergatik egiten dugu?** Foru arauak garrantzitsuak direlako Bizkaiko biztanleentzat. Nahiz eta urtero Foru araudiaren urteko plana ezartzen den kontsulta publiko eta ekarpen sozialen izapideak jarraitu behar dituen, garrantzitsua da parte hartu ahal izatea.

- **Zer egingo dugu?** Bizkaiko Partaidetza Atari barruan aplikazio informatiko bat sortzea. Bertan, hurrengo hiletan zein arau egitea aurreikusten den ikus ahal izango da, parte har daitekeen prozesuak eta datak eta honi buruz informazioa jasotzeko harpidetza egitea.

- **Nork parte hartzen du?**

- Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.

- Foru Sailek.

- **Nola ebaluatuko dugu?**

- Egutegia sortzea edo ez.
- Egutegia eguneratzea edo ez.

- **Noiz?** 2020an zehar egutegia sortuko da eta eguneratzen joango da.



4. Bizkaitarren Sarea indartzea

- **Zer lortu nahi dugu?** Partaidetzara pertsona eta erakunde gehiago hurbiltzea.
- **Zergatik egiten dugu?** Partaidetza eraginkorra izateko, herritarrek zertan eta nola parte har dezaketen jakitea funtsezkoa delako. Baita partaidetza prozesu zehatzei buruzko informazioa ematea interesdun taldeei.

- **Zer egingo dugu?**

- Pertsona eta erakunde gehiago sartu Bizkaitarren Sarean, aurreikusitako prozesuei buruzko etengabeko informazioa jaso dezaten.
- Newsletter** bat sortu eta herritarrei, eragileei eta BFAko langileei bidali. Partaidetza prozesu ireki edo aurreikusitakoen, jardueren eta albiste interesgarrien berri emango du

Newsletter:


Newsletter-a: posta elektronikoz bidaltzen den albiste digitalen buletina.

- **Nork parte hartzen du?**
 - Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.
 - Komunikaziorako Zuzendaritzak.
- **Nola ebaluatuko dugu?**
 - Bizkaitarren Sarean izena eman duten pertsonen eta erakundeen kopurua.
 - Newslettterra sortzea edo ez.
- **Noiz?** 2020an zehar egutegia sortuko da eta eguneratzen joango da.



1. Beste erakunde batzuekin partaidetza estrategia, plan eta sareetan parte hartzea

- **Zer lortu nahi dugu?** Bizkaiako partaidetza eredia etengabe garatzea eta hobetzea beste erakunde eta lurraldeekin lankidetzan.
- **Zergatik egiten dugu?** Funtsezkoa delako parte-hartzean joera berriak eta jardunbide egokiak ezagutzea eta beste erakundeekin lankidetzan modu berriak garatzea partaidetzak balio handiagoa eman diezaien politika publikoei.
- **Zer egingo dugu?**
 - Erakundeen arteko estrategietan, planetan eta proiektuetan parte hartzea; adibidez, OGP Euskadi ekimena.
 - Partaidetzari eta gobernu irekiari buruzko sareetan parte hartzea.
 - Partaidetza foro eta ekitaldietan parte hartzea Bizkaiko eredia zabaltzeko.
 - Partaidetzako erreferentziak edo jardunbide egokiak etengabe bilatzea eta aztertzea.





- **Nork parte hartzen du?**

- Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritzak.

- Gobernu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritzak.

- **Nola ebaluatuko dugu?** BFAk parte hartzen duen ekitaldien, estrategien, planen eta erakunde sareen kopurua.

- **Noiz?** 2020-2023 denboraldi osoan zehar.

